

i.blai

PROIEKTUA

INGURUAREN EZAGUERA

Argitulesoa

Ibaizabal

Maila

06

Proiektua


i.blai

Eloia

Lehen Hezkuntza

FOTOKOPIAGARRIAK





Arloa	Maila	Proiektua	Etapia
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA	06	i.blai	Lehen Hezkuntza

Egileak

Susana Gonzalo Gamo
Adrián Reigosa López

Gainbegiratzaile teknikoa

Ana María Otero Fernández



Aurkibidea

1	Nutrizio funtzioa	
	Errefortzua (Er).....	4
	Zabalkuntza (Z).....	5
	1. ebaluazioa (E1)	6
	2. ebaluazioa (E2)	7
	Prozedura (P).....	8
2	Erlazio funtzioa	
	Errefortzua (Er).....	9
	Zabalkuntza (Z).....	10
	1. ebaluazioa (E1)	11
	2. ebaluazioa (E2)	12
	Prozedura (P).....	13
3	Ugalketa funtzioa	
	Errefortzua (Er).....	14
	Zabalkuntza (Z).....	15
	1. ebaluazioa (E1)	16
	2. ebaluazioa (E2)	17
	Prozedura (P).....	18
4	Energia	
	Errefortzua (Er).....	19
	Zabalkuntza (Z).....	20
	1. ebaluazioa (E1)	21
	2. ebaluazioa (E2)	22
	Prozedura (P).....	23
5	Argia eta soinua	
	Errefortzua (Er).....	24
	Zabalkuntza (Z).....	25
	1. ebaluazioa (E1)	26
	2. ebaluazioa (E2)	27
	Prozedura (P).....	28
6	Elektrizitatea eta magnetismoa	
	Errefortzua (Er).....	29
	Zabalkuntza (Z).....	30
	1. ebaluazioa (E1)	31
	2. ebaluazioa (E2)	32
	Prozedura (P).....	33
7	Makinak eta aurrerapen teknikoak	
	Errefortzua (Er).....	34
	Zabalkuntza (Z).....	35
	1. ebaluazioa (E1)	36
	2. ebaluazioa (E2)	37
	Prozedura (P).....	38

8	Espainiako erliebea, klima eta ibaiak	
	Errefortzua (Er)	39
	Zabalkuntza (Z)	40
	1. ebaluazioa (E1)	41
	2. ebaluazioa (E2)	42
	Prozedura (P).....	43
9	Espainiako biztanleria eta antolakuntza politikoa	
	Errefortzua (Er)	44
	Zabalkuntza (Z)	45
	1. ebaluazioa (E1)	46
	2. ebaluazioa (E2)	47
	Prozedura (P).....	48
10	Europako geografia	
	Errefortzua (Er)	49
	Zabalkuntza (Z)	50
	1. ebaluazioa (E1)	51
	2. ebaluazioa (E2)	52
	Prozedura (P).....	53
11	Aro Modernoa	
	Errefortzua (Er)	54
	Zabalkuntza (Z)	55
	1. ebaluazioa (E1)	56
	2. ebaluazioa (E2)	57
	Prozedura (P).....	58
12	Aro Garaikidea	
	Errefortzua (Er)	59
	Zabalkuntza (Z)	60
	1. ebaluazioa (E1)	61
	2. ebaluazioa (E2)	62
	Prozedura (P).....	63
	Hezur sistema	64 eta 65
	Muskulu sistema	66 eta 67
	Espainiako mapa politikoa	68
	Espainiako mapa fisikoa.....	69
	Europako mapa politikoa	70
	Munduko mapa politikoa.....	71



Nutrizio funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

Er

1 Osatu digestio prozesuari buruzko honako taula hau.

Organoa	Funtzioa
ahoa	
	Elikadura boloa urin gastrikoekin nahastu eta kimo izeneko substantzia oretsu bihurtzen da.
heste meharra	
	Gure gorputzak aprobetxatu ez dituen substantziak bildu eta gorozki bihurtzen ditu.

2 Markatu X batekin esaldi honen jarraipen egokia.

Bizi funtzioak egiteko, gure gorputzeko zelulek...

- ...mantenugaiak eta karbono dioxidoa behar dituzte. ...mantenugaiak bakarrik behar dituzte.
- ...mantenugaiak eta oxigenoa behar dituzte. ...ez dute inolako substantziarik behar.

3 Azaldu zer berdintasun eta desberdintasun dituzten balbula trikuspideak eta balbula mitralak. Non daude?

4 Izerditzeko ez da beharrezkoa kirola egitea, beste hainbat egoeratan ere izerditu daiteke. Esan zer egoera diren horiek, ipini zenbait adibide, eta azaldu zergatik gertatzen den hori.

5 Zerk eragiten ditu hortz-haginetako txantxarrak? Azaldu nola saihestu daitezkeen.



Nutrizio funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

Z

Espainiako biztanleriaren erdiak, gutxi gorabehera, gehiegizko pisua edo gizentasuna du. 2006an eman zen zifra hori, eta ondorioz, arazo bera duten «lehenengo mundu» delako hainbat herrialderen zerrendan dago. Bestalde, planetako hainbat tokitan, batez ere Afrikako hegoaldean, goseak eragiten dituen kalteen irudi latzak komunikabideetan ikusten jarraitzen dugu. Munduko honako mapa honetan, beltzez ikus daitezke **loditasun** arazo larriak dituzten herrialdeak; eta zuriz eta marrekin, **desnutrizio** arazoak dituztenak.



1 Irakurri testua, begiratu arretaz munduko mapari, eta esan nola dauden banatuta loditasun arazoak dituzten herrialdeak eta desnutrizioa jasaten duten herrialdeak.

2 Zer uste duzu pentsatzen duela desnutrizio arazoak dituen herrialde bateko jendeak pertsona lodiek argaltzeko egiten dituzten dietei buruz?

3 Zer egin liteke desnutrizio eta loditasun arazoak saihesteko?





Nutrizio funtzioa

E1


Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

- 1 Idatzi marrazkien azpian bakoitzak irudikatzen duen organoaren izena. Ondoren, esan honako elementu hauek non dauden.

kardia itsua kolona piloroa ondestea



- 2 Osatu arnasketa prozesuari buruzko honako eskema hau.



- 3 Zergatik dira garrantzitsuak globulu zuriak?

- 4 Idatzi zer gaixotasun eragin ditzaketen honako ohitura txar hauek.

- Asko erretzeak: _____
- Koipe asko jateak eta kirolik ez egiteak: _____
- Gozoki asko jateak eta hortzak ez garbitzeak: _____
- Ur gutxi edateak: _____

Nutrizio funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

E2

- 1 Nola barreiatzen dira gure gorputzean digestio prozesuan sortzen diren mantenugaia?

- 2 Birikak arnasbideak dira? Azaldu zure erantzuna.

- 3 Lotu, gezien bidez, etiketa bakoitza dagokion marrazkiko irudikapenarekin.

plasma

globulu zuria



globulu gorria

plaketa

Zer elementu irudikatzen da marrazkian? _____

- 4 Egin gernu sistemaren marrazki bat giltzurrunak, ureterrak, uretra eta gernu maskuriak irudikatzen dituena.

- Nutrizio funtzioaren zein aparatari dagokio gernu sistema?

- Non dago gernu esfinterra? _____

- 5 Zergatik da garrantzitsua nutrizio funtzioan parte hartzen duten aparatuetan garbitasun ohitura onak izatea?



Nutrizio funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

P

Unitate honetan ikusi duzun bezala, nutrizio funtzioa funtsezkoa da izaki bizidunen garapenerako.

Ariketa honen bitartez, garapen egokia izan dezagun eguneroko **dietak** gure zelulek behar dituzten mantenugaiak ematen dizkigun aztertuko dugu; edo, aldiz, etorkizunean arazo edo gaixotasunen bat izatea saihesteko, zuzendu beharreko gabeziaren bat edo gehiegikeriaren bat ote dugun.

Honela egiten da

Honako taula hau paper handi batean kopiatuko dugu, eta astebetean hartzen ditugun jakiekin osatuko dugu. Ahalik eta zorrotzen izaten saiatuko gara, eta ordu tartetean jandako gozokiak, freskagarriak eta opilak ere jasoko ditugu.

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Gosaria							
Hamaiketakoa							
Bazkaria							
Askaria							
Afaria							

Adituek diotenez, astean zehar honako jaki hauek hartu behar ditugu: haragia gutxi gora-behera, astean behin; arraina, birritan; lekaleak, hirutan; barazkiak, lautan; eta fruta, bost aldiz.

Horrez gain, egunean, gutxienez, edalontzi bete esne edatea eta esnekiren bat jatea (gazta, jogurta...) gomendatzen dute, bai eta edalontzi bete zuku eta gluzido ugari dituzten jakien hiru anoa (pasta, ogia, zerealak) ere. Bestalde, opilak jatea eta edari gaseosoak edatea saihestu behar da.

Orain, zeuk egin

1 Erreparatu zure taulari, eta erantzun honako galdera hauei.

- Astean zehar bete al duzu adituek gomendatzen dutena? _____
- Jakiren bat gehiegi jan al duzu? Besteren baten gabeziarik ba al duzu? _____

2 Azkenengo bi galderetako erantzunen bat baiezkoa bada, zer arazo edo gaixotasun izan ditzakezu dieta horrekin jarraituz gero?

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

- 1 Osatu entzumen prozesuari buruzko honako testu hau, honako hitz hauek erabilita.

barne garunera estriboak barraskiloak kanpoko tinpanora mailuak

Soinua belarritik sartzen da, _____ entzumen hodia zeharkatzen du eta _____ iristen da. Horrek bi-bratu egiten du. Hiru hezurtxoko kate batek, hots, _____, ingudeak eta _____, bibrazioak jaso eta _____ belarrira helarazten ditu eta han, _____ jasotzen ditu. Horrek, bibrazioak seinale bihurtzen ditu, eta entzumen nerbiotik _____ joaten dira, bertan soinuak interpretatzeko.


- 2 Erantzun neuronei buruzko honako galdera hauei.

• Non daude neuronak? _____

• Nola helarazten dute informazioa batetik bestera? _____

• Zergatik dira horren garrantzitsuak? _____

• Horiekin loturiko zer gaixotasun ezagutzen dituzu? _____



- 3 Azaldu zer funtzio duten tendoiek.


Zein aparatari eta sistemari dagozkie? _____

- 4 Nola eragiten dute tabakoak, alkoholak eta drogek nerbio sisteman? _____

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

Z

Claude Monet XIX. eta XX. mendeen artean bizi izan zen margolari frantziarra izan zen. Haren margolanak benetako paisaien irudikapena izatetik irudikapen abstraktuak izatera igaro ziren. Gaur egun, badakigu horren zergatia: azkenik operatu bazen ere, begietako gaixotasun bat zeukan, hain zuzen, **begi lausoa**. Horrenbestez, antza denez, margolari ona izan arren, haren estiloa begietako arazoak mugatzen zuen. Hain mugatua zegoenez, ikusmena berreskuratu ostean, margotutako koadroren bat ere suntsitu zuen.



1 Monetek zehazki zer pintatzen zuen bazekiela uste al duzu? Arrazoitu zure erantzuna.


2 Zergatik uste duzu suntsitu zuela bere koadroren bat operatu ondoren?

3 Bilatu liburutegian edo interneten Moneten *Japoniar zubia* lana, 1918koa, eta errepara iezaiozu arretaz. Testuan esaten denaren arabera, nola uste duzu zeukala kaltetuta ikusmena?

4 Ikertu zer eragin duen begi lausoak ikusmenean, eta nola senda daitekeen. Ondoren, idatzi azpian aurkitu duzuna.

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

- 1 Lotu hitz bakoitza dagokion marrazkiko atalarekin.



- 2 Osatu honako esaldi hauek.

- _____ nerbioek zentzumenek jasotako informazioa _____ eramaten dute.
- Nerbio _____ entzefaloak erabakitako erantzuna _____ eramaten dute.

- 3 Izendatu kartilagoa duten gorputzeko bi atal.
- _____

- 4 Sailkatu taulan honako gaixotasun hauek, gorputzeko zer atali eragiten dioten kontuan hartuta.

depresioa erreumatismoa otitisa begi lausoa alzhemerra miopia
zaintiratua haragiaren etenak parkinsona haustura antsietatea tinpanoa zulatzea

Zentzumen organoak	Nerbio sistema	Lokomozio aparatua

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

- 1 Esan zer alde dagoen borondatezko mugimenduen eta oharkabekoen artean, eta ipini bakoitzaren adibideren bat.

- Borondatezko mugimenduak: _____

- Oharkabeko mugimenduak: _____

- 2 Idatzi bizkarrezur muinari buruzko testu bat, honako hitz hauek erabilia.


bizkarrezur

entzefalo

oharkabeko erantzun

nerbio ehunak

- 3 Honako marrazki hauetan, koloreztatu berdez tendoia; gorriz, muskulua; eta horiz, hezurra.



Marrazkietako zeinetan luzatzen da muskulua? _____

- 4 Pertsona nagusi askok erreumatismoa dute. Zein sistemari eragiten dio gaixotasun horrek?

Azaldu zertan datzan, eta nola ekidin dezakegun. _____

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

Pertsonen **ikusmen gaitasuna** modu errazean neur daiteke. Nahikoa da neurri desberdineko hitzak idaztea, eta distantzia zehatz batera irakurtzen saiatzea. Froga hori begietako gaixotasuna hautemateko erabiltzen da eta gidatzeko baimena lortzeko ere aplikatzen da, esaterako.



Ariketa hau launaka egingo dugu, bi bikotetan banatuta. Bikote bakoitzak taldeko beste bikoteari egingo dio ikusmen froga.

Honela egiten da



1. Paper laukidun batean bost hitz idatziko ditugu, zeinahi; bat bestearen azpian, eta berde koloreko boligrafo edo errotuladore mehe bat erabilia idatziko ditugu: letra batzuek lau laukitxoko altuera eta lau laukitxoko zabalera izango dute, beste hizki batzuek 3 x 3koa, beste batzuek 2 x 2koa, besteek 1 x 1ekoa, eta azkenek, lauki erdiko altuera eta zabalera izango dute.

2. Beste bikoteari 2 metroko distantzian erakutsiko diogu orria. Lehenik eta behin, lerro guztiak estaliko ditugu lehenengoa izan ezik; gero, bigarrena erakutsiko dugu, eta berdin egingo dugu hurrenez hurren. Kide batek beste bikoteak irakurritakoa jasoko du.



3. Ondoren, haiek egingo digute froga, modu berean baina beste hitz batzuk erabilia.

Orain, zeuk egin

1. Hitzen batean huts egin duzu? Eta zure kideek?

2. Zein distantzian irakurri dituzu lerro guztiak?

3. Errepikatu froga, beste hitz batzuekin eta boligrafo gorria erabilia. Emaitzak berdinak al dira? Aztertu zergatik izan daitekeen.



Ugalketa funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

Er

- 1 Emakumeen eta gizonen karaktere sexual sekundarioak berdinak al dira? Garatu zure erantzuna.

- 2 Osatu emakumeen eta gizonen gametoei buruzko honako esaldi hauek.

- Emakumeen gametoak _____ du izena; eta gizonenak, _____.
- _____ nukleoa du.
- _____ atalak burua, lepoa eta _____ dira.
- _____ bere kabuz lekualdatzeko gai da, eta _____ ez.

- 3 Azaldu zer esan nahi duen izaki bizidunak...

...bibiparoak garela: _____

...ugaztunak garela: _____

- 4 Ordenatu erditzearen honako etapa hauek.

kanporatzea erditzea poltsa amniotikoa haustea

- 5 Azaldu zer alde dagoen umekiaren eta enbrioiaren artean.

- 6 Izendatu ugalketa aparatuko infekzioak saihesteko kontuan hartu behar dituzun bi ohitura.




Ugalketa funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

Z

Itxura desberdina dugun arren, **ugaztun** guztiek ezaugarri komunak ditugu. Horiek agerian gelditzen dira umekiek enbrioiaren garapenean duten itxurari arreta handiz erreparatzen badiogu. Hala, ugaztun guztiek dugu bizkarrezurra, ondo sortutako garezurra eta jatorri bereko lau gorputz adar, esaterako.



1 Aurreko marrazkiek gizaki baten, txerri baten, txakur baten eta katu baten enbrioiak irudikatzen dituzte. Desberdintzeko gai al zara? Justifikatu zure erantzuna.

2 Izendatu lau enbrioiak dituzten launa ezaugarri.

3 Marrazkian ikusten den zein atal galtzen du gizakiaren enbrioiak jaio aurretik?

4 Azaldu zergatik diren lau enbrioiak bibiparoak.



Ugalketa funtzioa

E1

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

1 Markatu X batekin honako esaldi honen jarraipen egokia.

Helduaroa honako etapa hauetan banatzen da:

- nerabezaroa, helduaroa eta zahartzaroa. haurtzaroa eta nerabezaroa.
 gaztaroa, helduaroa eta zahartzaroa. helduaroa eta zahartzaroa.

2 Koloreztatu berdez ongi sailkatuta dauden organoak; eta gorriz, gaizki sailkatuta daudenak.

Emakumezkoen ugalketa aparatua	Gizonezkoen ugalketa aparatua
obuluak	bagina
espermatozoideak	semen besikulak
obulutegiak	umetokia
bulba	uretra
zakila	testikuluak
hodi deferenteak	Falopioren tronpak

3 Markatu karena eta poltsa amiotikoa honako marrakzi honetan. Zein da horien funtzioa?



4 Honako kasu hauen arteko zeinetan egiten da ernalketa laborategian? Inguratu erantzun zuzena.

baginitis kasuan antzutasun kasuan uretritis kasuan

Azaldu nola egiten den: _____



Ugalketa funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

E2

1 Markatu marrazki bakoitzean bi ezaugarri sexual sekundario, gutxienez.



2 Demagun emakumeen ugalketa aparatua ez duela umetokirik. Azaldu zer eragin izango lukeen ugalketa funtzioan.

3 Posible al da zilbor gabeko norbait egotea? Arrazoitu zure erantzuna.

4 Lotu, gezien bitartez, ugalketa aparatuko gaixotasun bakoitza horiek sortzeko arrazoiekin.

baginitisa eta uretritisa

substantzia kutsakorren eraginpean jartzea

minbizia

garbitasun eza

antzutasuna

tabako larregi erretzea



Ugalketa funtzioa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

P

Demografia biztanleria ikertzen duen zientzia da, eta joeraz, banaketaz eta tamainaz arduratzen da. Jaiotza tasa, hilkortasun tasa eta migrazioak neurtzen ditu, ez bakarrik zenbat garen kalkulatzeko, baizik eta etorkizunean zenbat izango garen kalkulatzeko ere. Hortik abiatuta dakigu, adibidez, Espainiako biztanleria lehen baino mantsoago haziz doala. Datu hori modu errazean egiazta dezakegu.

Honela egiten da

Osatu honako taula hau zure familian zareten neba-arreben kopuruarekin, zeure burua ere kontuan hartuta; ondoren, zenbatu zure amaren eta aitaren neba-arreben kopurua, eta jakin ahal baduzu, baita zure aitona-amonen neba-arreben kopurua ere. Idatzi urdinez emakumeen kopurua; eta gorritz, gizonen kopurua.

Aitona-amonen belaunaldia	Amaren aldeko amona		Amaren aldeko aitona		Aitaren aldeko amona		Aitaren aldeko aitona	
	ahizpen kopurua	neben kopurua	arreben kopurua	anaien kopurua	ahizpen kopurua	neben kopurua	arreben kopurua	anaien kopurua
Gurasoen belaunaldia	Ama				Aita			
	ahizpen kopurua		neben kopurua		arreben kopurua		anaien kopurua	
Egungo belaunaldia	Zu							
	ahizpa/arreben kopurua				neba/anaien kopurua			

Orain, zeuk egin

1 Erreparatu zure taulako datuei. Belaunaldiak igaro ahala seme-alaben kopurua gutxitu al da? Hala bada, zergatik uste duzu gertatu dela?

2 Zure familian, gizon eta emakumeen kopuru bera al dago?


3 Konparatu zure emaitzak kideen emaitzekin, eta atera ondorio komun bat.

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

1 Ipini energia mota bakoitzaren adibide bana.

- Energia mekanikoa: _____
- Argi energia: _____
- Bero energia: _____
- Energia kimikoa: _____
- Energia nuklearra: _____
- Energia elektrikoa: _____



2 Osatu energia iturriei buruzko honako eskema hau.



3 Azaldu zergatik den gezurra honako baieztapen hau.

«Zentral nuklearrek ez dutenez atmosferara karbono dioxidorik isurtzen, ez dira ingurumenerako kaltegarriak».

4 Azaldu nola lagun diezaioketen honako ekintza hauek garapen iraunkorrari.



1. _____
2. _____
3. _____

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

Gizakiak aurre egin behar dion arazo larrietakoa izan daiteke **aldaketa klimatikoa**. Berotegi efektua areagotzearen ondorioz sortutako tenperatura igoerak, halaber, erregai fosilen erabileraren ondorioz sortu dena, klima alda dezake. Ondorio larrietako bat poloak urtzea da, ez bakarrik hango izakiak kaltetuko dituelako, baizik eta planeta osoko itsas maila igotzea ekarriko duelako, eta horrek, kostako herrietan bizi den jendeari egingo diolako kalte.



1. BILBO
2. DONOSTIA
3. GASTEIZ
4. LOGROÑO
5. IRUÑEA
6. SANTA CRUZ TENERIFEKOA
7. LAS PALMAS KANARIA HANDIKOIA




- 1 Irakurri testua, eta erreparatu mapari. Egin zerrenda bat itsas maila hasiko balitz kaltetuak izango liratekeen Espainiako hiri nagusien izenekin.

- 2 Bilatu horietako batzuek duten biztanleen kopuruari buruzko informazioa. Erraza izango litzateke pertsona horiek beste toki batzuetan kokatzea?

- 3 Zer ondorio ekarriko lituzke Espainian itsas maila igotzeak?

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

- 1 Begiratu honako marrazki hauei, eta esan bakoitzak zer energia iturri irudikatzen duen. Ondoren, idatzi laukitxoan «B» letra, berriztagarria bada, eta «EB», ez-berriztagarriak bada.



- 2 Zergatik sortzen dira euri azidoa eta berotegi efektua zenbait energia erabiltzearen ondorioz?

Nola saihestu litezke ingurumeneko arazo horiek? _____

- 3 Izendatu garapen iraunkorra lortzeko bi ekintza kolektibo eta banakako beste bi ekintza.

• Kolektiboak: _____

• Banakakoak: _____

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

- 1 Ura energia iturri berriztagarria da. Zertan desberdintzen da ez-berriztagarriekin?

Sekula bukatuko ez denez, alferrik galdu dezakegula esan nahi al du horrek? Arrazoitu zure erantzuna. _____

- 2 Saikatu taulan honako energia mota hauek. Ondoren, idatzi bakoitzaren alboan energia konbentzionala edo energia alternatiboa den.

eguzki energia ikatza hidraulikoa petrolio mareomotriza eolikoa
 gas naturala biomasa geotermikoa substantzia erradioaktiboak

Energia berriztagarriak	Energia ez-berriztagarriak

- 3 Zuzena al da honako baieztapen hau? Azaldu zergatik.

«Garapen iraunkorra, baliabideak gaur egungo belaunaldia asetzeko moduan erabiltzean datza».

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

Elektrizitatea gure etxeetan gehien erabiltzen den energia mota da. Izan ere, garraiatzeko eta beste energia forma batzuetan eraldatzeko erraza da. Elektrizitatearen hain mendekotasun handia dugu, ezen itzalaldi bat egonez gero, gure eguneroko jarduera gelditzen dugula. Bestalde, hura erabiltzera ohituta gaude, eta ez gara ohartzen zenbat kontsumitzen dugun. Hala ere, egunean zenbat energia elektriko gastatzen dugun erraz jakin dezakegu, tresna elektriko guztiek horien kontsumoari buruzko etiketa baitaukate. Aise hauteman daiteke: zenbaki bat agertzen da, eta ondoan W sinboloa dauka (watt).

Honela egiten da

Honako taula honetan gazteek etxeetan gehien erabiltzen dituzten tresna elektrikoak agertzen dira. Ia erabiltzen ez duzun baten bat badago, gehiago erabiltzen duzun beste batekin alda dezakezu.

Tresna	Kontsumitutako watten kopurua	Egunero erabiltako orduen kopurua	Watten kopurua x egunero erabiltako orduen kopurua
telebista			
bonbilla			
ordenagailua			
ile lehorgailua			
DVD irakurgailua			
CD irakurgailua			
bideo kotsola			

1. Lehenengo zutabea, tresna bakoitzak kontsumitzen duen watt kopurua idatziko dugu (etiketan agertzen da).
2. Bigarren zutabea, tresna bakoitza egunean zenbat orduan erabili dugun jasoko dugu.
3. Azken zutabea, tresna bakoitzak kontsumitzen duen watten kopuruaren eta egunero erabiltzen dugun orduen kopuruaren arteko biderketaren emaitza idatziko dugu.

Orain, zeuk egin

1 Bete taula zure kontsumo datuekin, eta erantzun honako galdera hauei.

- Zein da watt gehien kontsumitzen duen tresna? _____
- Eta gehien erabiltzen duzuna? _____
- Ba al dago ezinbesteko tresnarik zuretzat? _____

2 Egin zure eguneroko guztizko energia kontsumoa gutxitzeko plan bat.

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

Er

1 Idatzi honako baieztapen hauek frogatzeko adibide bana.

- Argia norabide guztietara hedatzen da. _____

- Argia zuzen hedatzen da. _____

- Argia hedatzearen abiadura zeharkatzen duen ingurunearen dentsitatearen araberakoa da. _____

2 Lagun batek ikusmen arazoak dituela eta, objektuak benetan direna baino txikiago ikusten dituela esaten badizu, akats hori zuzentzeko lente konbergenteak ala dibergenteak gomendatuko dizkiozu? Zergatik?

3 Osatu soinuaren ezaugarriei buruzko honako taula hau.

Ezaugarria	Deskribapena	Adibidea
	Soinu gogorrak eta ahulak desberdin-tzea ahalbidetzen du.	
tonua		
	Soinua egiten duen gorputza desberdintzea ahalbidetzen du.	

4 Azaldu, adibideak erabilita, zarataren eta soinuaren arteko antzekotasunak eta aldeak.


Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

Z

Pertsonak eguneko animaliak gara, eta iluntasunak seguru ez sentitzea eragiten digu. Gaua iristen denean, ilargiaren argitasuna gutxiegi dela deritzogu; horregatik, **argi artifiziala** larregi erabiltzen dugu eta gure etxeak, kaleak eta bideak hain biziki argitzen ditugu, zeruak ere distira egiten du. Ohitura hori ez da batere ona: izaki bizidunok eguna eta gaua txandakatu behar ditugu etengabe deskantsatzeko, eta ziklo hori etetea osasunerako kaltegarria izan daiteke.

Halaber, gaueko argiak beste izaki bizidun batzuen bizitza aztoratzen du: milaka intsektu farolen inguruan harrapatuta gelditzen dira, urretxindorren ugalketa zikloak asaldatzen dira, eta, dortoka jaioberriek hirietako distira itsasoarekin nahasten dutenez, gauean galdu egiten dira.

Arazo horrek irtenbide erraza du: goiko aldea opakua duten farolak eta lanparak erabiltzea, argia behera baino joan ez dadin, eta ez norabide guztietara. Konponbide erraz horri esker, milaka pertsonak berriro izarrak ikusiko lituzkete.



- 1 Testuaren arabera, farolen goiko aldea opakua izan beharko litzateke. Zergatik? Zeharrargia izanez gero, emaitza bera izango litzateke? Arrazoitu zure erantzuna.



- 2 Nolakoak dira zure kaleko farolak? Izarrak ikustea ahalbidetzen al dizute?

- 3 Azaldu zergatik den garrantzitsua gauean zeruan dagoen argitasuna urritzeko neurriak hartzea.

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

E1

- 1 Seinalatu argi iturriak irudikatzen dituzten marrazkiak.



Sailkatu iturri naturaletan edo artifizialetan, eta azaldu zergatik egin duzun horrela. _____

- 2 Koloreztatu objektuak benetako tamainan ikusi beharrean modu desberdinean ikustea eragiten digun eta argiarekin zerikusia duen fenomenoak.

islapena

errefrakzioa

xurgapena

Azaldu zergatik gertatzen den efektu hori. _____

- 3 Zer uste duzu gertatuko zela tinpanorik ez bagenu? Arrazoitu zure erantzuna.


- 4 Azaldu zergatik den gezurra honako esaldi hau.

«Ez gara zaratez arduratu behar, ez digutelako osasunean kalterik eragiten».

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

E2

- 1 Erreparatu honako marrazki hauei.



Irudikatutako zein tokitan hedatuko da bizkorrago argia? Zergatik? _____

Lehenengo marrazkiak hutsa irudikatzen du. Definitu hutsa zer den, eta esan non dagoen. _____

- 2 Markatu X batekin honako esaldi honen jarraipen egokia.

Gorputz batek xurgatutako izpien argi energia...

- ... energia elektriko bihurtzen da.
 ... bero energia bihurtzen da.
 ... islatu egiten da.

- 3 Posible al da zuretzat soinu atsegina dena besteentzat zarata gogaikarria izatea?
 Garatu zure erantzuna.

- 4 Idatzi «E», esaldia egia bada; eta «G», esaldia gezurra bada.

- Argia eta soinua bi energia mota dira.
 Argiak ingurune bat behar du, hedatzeko.
 Soinuak ez du ingurunerik behar hedatzeko.
 Kutsadura akustikoak osasunari larriki eragin diezaioke.

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

P

Benjamin Franklinek frogatu zuen bezala, tximistak, hodeiak sortzen dituzten euri tanten marruskaduraren eraginez sortutako deskarga elektrikoak dira. Batzuetan, hain gogorrak direnez, trumoi deitzen ditugun zaratak sortzen dituzte.

Tximista eta **trumoia** aldi berean sortzen badira ere, argiaren eta soinuaren abiadura ezberdinaren eraginez, bat bestea baino lehenago hautematen dugu. Argia berehala iristen da gure begietara, bere abiadura ia 300.000 km/s-koa baita; aldiz, soinua geroago iristen da, bere abiadura askoz txikiagoa delako, 340 m/s-koa baino ez. Alde horri esker, ekaitza hurbiltzen edo urruntzen ari den jakin dezakegu.

Honela egiten da

Ekaitza zer distantzian dagoen jakiteko, nahikoa da tximistaren eta trumoiaren artean igarotzen den segundoen kopurua zenbatzea eta 340ekin biderkatzea.

Honako taula honetan, ekaitz bateko hiru une desberdinetan tximisten eta trumoiaren artean igarotako segundoak agertzen zaizkigu. Egin kalkuluak, eta ondoren, egin ariketak.

Tximistaren eta trumoiaren arteko tartea (segundotan)	Ekaitzaren distantzia (metrotan)
1	
3	
8	



Orain, zeuk egin

- 1 Erreparatu taulari. Tximistaren eta trumoiaren tartea gero eta handiagoa bada, ekaitza hurbiltzen ala urruntzen ari da?

- 2 Non dago ekaitza tximista eta trumoia batera gertatzen badira?

- 3 Sekula ohartu al zara tximistaren eta trumoiaren arteko denboraz? Zure herrian izaten den hurrengo ekaitzean, bien tarteko segundoak jaso, eta egin ariketakoa bezalako taula bat.



Elektrizitatea eta magnetismoa

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

Er

1 Koloreztatu honako esaldi honen erantzunak izan daitezkeenak.

Gorputzek honako karga hau izan dezakete:

positiboa

isolatzailea

negatiboa

eroalea

2 Osatu zirkuitu elektrikoaren osagaiei buruzko honako taula hau.

Osagaia	Deskribapena
	Korronte elektrikoa sortzen du.
hargailua	
	Korronte elektrikoak zirkulatzen duen kableak dira.
etengailua	

3 Osatu imanei buruzko honako eskema hau.

Imanak { _____: ez ditu
 _____ sortu.
 _____:
 sortu ditu.

{ adibidez:

{ adibidez:

4 Idatzi makina bakoitzaren azpian zein dabilen dinamoari esker, eta zein dabilen alternadoreari esker.



Zer energia mota aprobetxatzen da bi kasuetan? _____



Elektrizitatea eta magnetismoa

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

Z

Gure nerbio sistemak **elektrizitatea** erabiltzen du garuna gainontzeko gorputz atalekin komunikatzeko. Deskarga txikien bitartez, hankak mugitzeko gai gara, gure bihotzak taupadak ematen ditu, eta arnasa hartzen dugu. Horregatik, pertsona batek deskarga elektrikoa jasotzen duenean, kalte larriak izan ditzake. Izan ere, intentsitate handiak bere barruko «zirkuitu elektrikoa erre» dezake.

Bestalde, elektrizitateak bizia ere salba diezaguke. Film askotan ikus dezakegu nola erreanimatzen duen sendagile batek bihotz gelditzea izan duen norbait desfibriladore bat erabilia, eta hala gertatzen da benetan ere.

Gainera, medikuntzan, gaixotasunak diagnostikatzeko gure organoetako intentsitate elektrikoa neurtzea ahalbidetzen diguten tresnak erabiltzen dira: adibidez, elektrokardiograma bihotzerako, edo entzefalograma garunerako.



desfibriladorea



entzefalograma



elektrokardiograma

- 1 Irakurri testua arretaz, eta erantzun. Gure gorputza zirkuitu elektrikoa izango balitz, zer izango litzateke elektrizitate eroalea?

- 2 Medikuntzan, elektrizitatea erabiltzea beharrezkoa dela uste al duzu? Zergatik?

- 3 Pertsona batek deskarga elektrikoa jasotzen badu eta une horretan beste pertsona bat ukitzen ari bada, zergatik helarazten dio deskarga?

- 4 Ikertu osasun arloan elektrizitateari ematen zaizkion beste erabilera batzuk.



Elektrizitatea eta magnetismoa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

E1

1 Idatzi marrazki bakoitzaren azpian honako material hauek eroaleak edo isolatzaileak diren.



Zer desberdintasun dituzte bi material mota horiek? _____


2 Inguratu zirkuitu elektriko bateko osagaiak.

eremu magnetikoa pila alternadorea garabia eroalea
sorgailua etengailua elektroimana hartzailea

3 Seinalatu marrazkian honako elementu hauek.

- Ipar polo magnetikoa.
- Hego polo magnetikoa.
- Ipar polo geografikoa.
- Hego polo geografikoa.

Azaldu zer alde dagoen polo magnetikoen eta polo geografikoaren artean. _____



4 Azaldu zer den elektromagnetismoa adibide bat erabilita.



Elektrizitatea eta magnetismoa

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____


E2

1 Zer esan nahi du gorputz bat elektrikoki neutroa dela?



Neutroa izateaz gain, nolakoa izan daiteke gorputz bat bere karga elektrikoaren arabera? _____

2 Zer irudikatzen du honako marrazki honek?

Azaldu zer funtzio duen. _____



3 Erreparatu honako bineta hauei.



Deskribatu neskatoa egiten ari den esperimentua. _____

Zein eremutan nabaritzen da gehiago imanen efektua? _____

4 Azaldu nola funtzionatzen duten motor elektrikoek, eta izendatu etxean duzun eta motor elektriko duen tresnaren bat.



Elektrizitatea eta magnetismoa


Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

P

Guk nabaritzen ez badugu ere, hain indartsua denez, Lurraren eremu magnetikoa imandutako burdina zatitxo bat bideratzeko gai ere bada. Txinatarrek egin zuten aurkikuntza hori, eta arabiarrek perfektionatu eta **iparrorratza** sortu zuten, asmatu zutenetik gaur arte abenturazaleak eta aurkitzaileak gidatu dituen tresna.

Iparrorratz bat egitea nahiko erraza da: iman bat, orratz bat, kortxozko bolatxo bat eta urez betetako ontzi bat baino ez ditugu behar.

Honela egiten da



1. Orratza burutik hartuko dugu, eta imanarekin igurtziko dugu, beti norabide berean.



2. Kortxozko bolatxo orratzarekin zeharkatuko dugu.



3. Kontu handiz, orrazdun bolatxo urez betetako ontzian sartuko dugu.



4. Orratzaren puntak Iparra markatuko du.

Ez dugu ez urik mugitu behar, ez eta metalezko objektuetatik gertu egon behar ere, emaitza alda daitekeelako.

Orain, zeuk egin

1 Egin praktika gelan, eta egiaztatu orratzak Iparra norabide berean markatzen dizuela guztioi.

2 Orratzak denbora asko behar izan du egonkortzeko?

3 Zer gertatuko da iman bat edo sakelako telefono bat hurbiltzen badiogu?



Makinak eta aurrerapen teknikoak

Ikaslea: _____ Maila: _____ Data: _____

Er

1 Lotu, gezienez bidez, makina mota bakoitza dagokion adibidearekin.

makina elektrikoa

motorra

makina termikoa

guraizeak

fluido makinak

ordenagailua

eskuzko makinak

turbina

2 Idatzi marrazki bakoitzaren azpian operadore mekanikoa ala energetikoa den.



3 Izendatu etxean duzun artisaueko objektuen bat eta ekoizpen industrialeko beste objektuen bat.

• Artisaueko: _____ • Ekoizpen industrialeko: _____

4 Azaldu zer diren lehen sorospak.

5 Zergatik hasi zen igotzen XVIII. mendetik aurrera planetaren kutsadura maila? Arrazoi zure erantzuna.



Makinak eta aurrerapen teknikoak

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

Z

Garapen teknologikoak ingurumenean eragin duen ondorio negatiboetako bat **hondakin solidoak** sortzea izan da (mota guztietako hondakinak: plastikoak, konposatu toxikoak, etab.). Sortzen duen zaborren kopuruaren arabera, herrialde baten garapen maila neur daitekeela ere esaten da (zenbat eta aurreratuagoa, orduan eta zabor gehiago). Harritzekoa da, garapen bidean dauden eta aurrerapen teknologikorik ez duten hainbat herrialdek ere, hondakin eta kutsadura maila altuak dituztela. Izan ere, herrialde garatuek, haietara bidaltzen dituzte euren hondakinak, baita kutsadura handia sortzearen ondorioz euren herrietan debekatuta dauden makinak ere.

- 1 Zergatik uste duzu sortzen duela herrialde batek orduan eta hondakin gehiago, zenbat eta aurreratuago egon? Azaldu zure erantzuna aurrerapen teknologikoekin lotuta.

- 2 Nola gutxi genitzake sortutako hondakinak?

- 3 Garapen bidean dauden herrialdeetan gertatzen dena bidezkoa dela uste al duzu? Zergatik?

Aurrerapen teknologikoak kultura alorrean ere badaude. *E-book* deritzona edo **liburu elektronikoa** bideojokoen kontsolaren antzeko makina da, liburu baten itxura duena, baina jokoen orde, pantailan irakurtzen diren testuak dituena. Oraindik, nahiko pisutsua eta garestia da, baina pixkanaka-pixkanaka perfektionatu egingo dute eta eskuragarria izango da.

- 4 Aipatu liburu elektronikoaren berezitasun bat ingurumena zaintzen laguntzen duena, eta beste bat, kalte egiten diona.

- 5 Aurrerapen teknologiko horri buruzko zer iritzi duzu?



Makinak eta aurrerapen teknikoak

Ikaslea: _____ Maila: ____ Data: _____

E1

